



erreka

LAZKAOKO JOANESEN KANTA

Juan San Martín

Gaztelako erregea Gipuzkoaz jabetzean, ordurarte bertakotzat ez zuen aintzinako Oiarso eskualdeaz ere jabetu zen, Erdi-Aroko historian Nafarroaren erresumako zena eta elizaz Baionako Apezpikutegekia.

Ondoko urteetan inguru honek, pake guti ezagutu zuen, nafar erregetza suntsitu arte. Mende bat geroago, 132lean, Beotibarko gudua, Tolosa ondoan, nafarrak gipuzkoaz berriaz jabetu nahirik, Zaldibia historiagileak bilduriko kantak dion bezala:

*Mila urte igarota
ura bere bidean.
Gipuzkoarrok sartu dira
Gazteluko etxean,
nafarrokin batu dira
Beotibarren pelean.*

Gazteluko etxea, hori ez zen errege koroarena baizik, eta, nonbait, XIII. mendearen haseran Gaztelako erregeekin bat egin gerotzik ere Nafarroakin loturak berrizteak ezagutu zituela erakutsi nahi du.

Beste bi mende pasatu beharko ziren gudu haiek baretzeko. Baretzeko diot? Ez. Zeren, hobeto esan, ez zegoen baretzerik bata bestea errenditu artio.

Bizkaiko Aulestin Bengoetxeatarren armarririk honako irarria ekarriaren,

*Bekoak goikoa eskondu leidi
Ta txikiak haundia benzi leidi
Asmuz eta jakitez.*

Garai hartan nafarrok ez zuten erakutsi asmoz eta jakitez zuhur jokatu ahal izateko politika egokirik. Aldiz, Gaztelako erregeek maltzurragoak izaki eta zuhurtasunez jokatu zuten Ahaide Nagusiak beren artean sortzen zituzten borrokak aprobetxatuz. Batean agramont-beamondar eta bestean oinaz-ganboar gudueri pizgarria emanaz, hortarako jauntxoan artean poteretsuenei lagunduz. Adibidez, Leringo kondeari lagundu zion bezala, Vatikanotik ere nolabaiteko bula lortuaz. Edo, hiritarren batzarreak anaikide bilduaz, Gipuzkoako «Hermandadeak» adibide, herria pribilegiozko foruz hornituz eta aitonensemetza unibertsaliki aitortuz, Gipuzkoaren kasoan eta Bizkaia hain berea zuena gordetzeko beharrezko zuen berma eskainiz. Historiako aldi hortan, begien bistan dago, asmo eta jakitea Gaztelak erakutsi zuela.

Gipuzkoan, lehenik ganboarrak bereganatu zituen, horrela Nafarroari itsasorako irtera moztuz, zeren Ahaide Nagusi horiek ziren gehienbat itsas-hegaleko hirietan kokatuak, portuen agintariak eta era berean merkatalgoarena eta honekin batean ekonomiaren indarra zutenak. Nafarroak, etsi ezinez, eta 1365ean Nafarroako errege Karlos II.ak gipuzkoar ordezkariekin pakeak egitera heldu zen Endara portua berak aprobetxatu ahal izateko. Endaralatsa zen mugan. Gaur egun Endarlatsa bezala ezagutzen denaren inguruan.

Nondragoeko erreketak (1448an) bizkortu zuen jauntxoaren borrokak bukatzea. Gipuzkoako Hirien Anaiartearen eskariz, errege Enrike IV.ak neurri gogorrek hartu zituzten, torretxeak bota eta nagusiak desterratzearekin. Ordutik, beren buruak goi mailetan mantentzeko bazituzten, lehenago ganboarrak bezala gero oinaztarrak makurtu ziren Gaztelako erregeren zerbitzuko. Mila urte igaro baino lehen aldatu ziren urak. Ondorioz, azkar ibili ziren Lazkaoko oinaztarrak haize berrien alde, geroxeago Loiolakoak nabarmendu ziren bezala.

Agramondarrik fidelkienak Frantziako errege izango zen Biarnokoaren alde jarri. Oro, 1280. urtean Artois eta Foixko kondeak izan zirela nafarren alde Hondarribiari hesia jarri zietenak. 1476an ordea, Frantziako errege Luis XI.ak asmo berdina zekarrela. Espainiako historiagileek besterik badiote ere, Nafarroako erregeri laguntzea zen hesi haien helburua.

Arazo larria sortu zuten, benetan, eta Errege Katolikoek ia galdutzat emana zuten 1476ko hura. Iritsi zen Lazkaoko jaunarentzat aukera egokia, joanak joan, geroari begira jauntasuna zuritzeko. Joanes Lazkaokoren deira gipuzkoar guziak etorri ziren eta Jaizkibel aldetik, Eskulin eta Jaizubia allerruak zehar jauzi ziren frantsesaren hesia hautsiz hirikoak askatzeko.

Handik datorkigu Batxiler Zaldibiak bildu zuen kanta hura:

*Juan de Lazkano beltzarana,
Gipuzkoako kapitana,
Frantsez osteak jakingo du
hura Hondarribian zana.*

Kanta luzeagoa zen nonbait, baina lehenbiziko bertso hau baizik ez da ezagutzen.